



INGURUMEN-IKUSKAPENEN JARDUEREN MEMORIA URTEA: 2021

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza
Administrazio-unitatea: Ingurumen-ikuskapena

Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Proiektuen zerrenda	2
2.1.- Proiektua: 2021 IPPC segimendu-ikuskapena	2
2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapena 2020	7
2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena	9
2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna	10
2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa	12
2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan	13
2.7.- Proiektua: EAEko nikel-mailak kontrolatzea (INOX)	14
2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa	14
2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa	15
2.10.- Proiektua: Zabortegietako hondakinen mugen kontrola	18
3. Emaitzak	19
4. Ondorioak	20



1. Sarrera

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritza Zerbitzuak 2021eko ekitaldirako zehaztutako ikuskapen-programari lotuta egindako jarduketak.

2. Proiektuen zerrenda

Jarraian jasotzen dira 2021eko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio nagusiak.

2.1.- Proiektua: 2021 IPPC segimendu-ikuskapena

Erreferentzia: 2021-01

2.1.1.- Jarduketak

473 ikuskapen egin dira, eta horietatik 156 enpresetan egin dira; hau da, aurrez aurrekoak izan dira, eta 317 dokumentu bidezkoak izan dira, ingurumen-zaintzarako planak eta ingurumen-organoetatik errekerimenduei emandako erantzunak egiaztatze aldera. Aurrez aurreko ikuskapenei dagokienez, 139 jarraipen-ikuskapen izan dira (programatuak) eta gainerako 17ak programatu gabeko ikuskapenak izan dira.

Ikuskapenari zegozkion aktak egin dira, eta horiekin lotutako txostenak bidali zaizkie enpresei, baita, beharrezkoa zen kasuetan, errekerimenduak ere.

Era berean, sailaren webgunean argitaratu dira aurrez aurre egindako programatutako ikuskapenei dagozkien txostenak.

2.1.2.- Ondorioak

Ondorio nagusia da in situ ikuskapenen programazioa bete dela neurri handi batean: programatutako 135 ikuskapenetatik 139 instalazio ikuskatu dira modu programatuan. Hori gertatzen da IPPC araudiari lotutako instalazio berriak daudelako eta hainbat instalazioren aldizkakotasuna murriztu delako, lotutako arazoak direla eta.

Programatutako ikuskapenak egin ondoren, ikusi da betetze-maila nabarmeneko, hau da, handiko edo ertain-handiko enpresen kopurua 2020an lortutakoa baino handiago dela, atal horretan 89 enpresa baitaude. Hala ere, betetze-maila ertain baxua eta baxua duten enpresak 2021ean handitu egin dira 2020tik 17 enpresatara.




Proiektu honi dagokionez, gogorarazi behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen araudian erregulatzen dela. Araudi horretan, era berean, ikuskapen-bisiten aldizkakotasuna ere ezartzen da, jarduera bakoitzarekin loturiko ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

Jarraian, 1. taulan eta 1. irudian, proiektuaren datu orokorrak adierazten dira. Hain zuzen ere, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren ingurumen-baimen integratuetako baldintzak betetzeari dagozkion ondorioak adierazten dira.

ENPRESAK, GUZTIRA	EZ-BETETZERIK GABE	EZ-BETETZEKIN
139	22	117

1. taula. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten instalazioen kopurua




1. irudia. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten ikuskatutako enpresen banaketa



2. taulan eta 2. irudian, antzeman diren ez-betetzeen kopurua agertzen da, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren, zehaztutako ez-betetzearen larritasunaren arabera.

EZ-BETETZEAK, GUZTIRA	Garrantzi gutxiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
455	410	42	3	0

2. taula. Ez-betetzeen kopurua, larritasunaren arabera sailkatuta




2. irudia. Ez-betetzeen banaketa, larritasunaren arabera

ARRISKU-INDIZEA (AI)

3. taulan eta 3. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku motaren arabera: gutxieneko arrisku-indizea AI=1 da, eta, gehienekoa, AI=5.

GUZTIRA	AI 1	AI 2	AI 3	IR 4	IR 5
139	6	44	61	24	2

3. taula. Enpresen kopurua, arrisku motaren arabera, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren




3. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku motaren arabera.

ARRISKU-KATEGORIA (AK)

4. taulan eta 4. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku-kategoriaren arabera. Aipatu beharra dago ikuskapen-aldizkakotasuna egindako azken ikuskapenaren osteko arriskuaren arabera ezartzen dela: AK=1, urtean behingo aldizkakotasuna; AK=2, bi urtean behingo aldizkakotasuna; eta AK=3, hiru urtean behingo aldizkakotasuna.

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
139	25	56	56

4. taula. Enpresen kopurua, arrisku-kategoriaren arabera




4. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku-kategoriaren arabera

**BETETZE-MAILA**

5. taulan eta 5. irudian, ikuskatutako ikuskapenen betetze-maila adierazten da.

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
139	59	30	33	9	8

5. taula. Enpresen kopurua, betetze-mailaren arabera



5. irudia. Instalazioen banaketa, betetze-mailaren arabera



2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapena 2020

Erreferentzia : 2020-02

2.2.1.- Jarduketak

IPPC ez diren jardueren ikuskapena kontratatutako Ikuskapen Zerbitzuko langileek zein Ingurumen Lankidetzako Erakundeek egin dute, ingurumen-organoaren jarraibideen arabera. 2021ean urtarriletik martxora bitartean egin dira COVID-19 gaitzagatik 2020an egin ezin izan ziren ILEei esleitutako ikuskapenak, eta urte osoan egin dira 2021erako programatutako ikuskapenak.

Hala, 2021eko ekitaldian 279 ikuskapen egin dituzte ILEek, eta 2 Ikuskaritza Zerbitzuak.


Era berean, dagokion errekerimendua igorri zaie aplikatu beharreko legeriarekiko desbideratzeak daudela egiaztatu duten enpresei. Aipatu behar da, desbideratzeak txikiagoak izan diren kasuetan, administratuarentzako izapideak sinplifikatze aldera, zuzentzeko errekerimenduaren ordeaz erantzukizunpeko adierazpen bat egin dela.

Era berean, jarraipena egin zaio dokumentazioa, desbideratzeak eta abar zuzentzeko eskatu zaien instalazioei.

2021eko proiektu honetan, 2021 Programan adierazi zen bezala, hondakinak zabortegean ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren arabera, IPPC ez diren hondakinak ezabatzeko instalazioak ikuskatu dira. Zehazki, 18 instalazio bisitatu dira. Adierazi behar da jarduera horiek ez daudela Industria Isurpenen Zuzentarauaren esparruan, ingurumenean eragin txikia dutelako.


2.2.2.- Ondorioak

2021eko ikuskapenen emaitzak aztertuta, esan daiteke ikuskapenen % 35ek betetze-maila altua/ertain-altua izan dutela, % 29k betetze-maila ertaina eta % 35ek betetze-maila ertaina/txikia (ikus 6. irudia).



6. irudia. Betetze-mailaren ebaluazioa

Ikuskapenaren ondoren, kasuen % 73an instalazioa zuzentzeko errekerimendu bat izapidetu da, hau da, 160 errekerimendu izapidetu dira; kasuen % 18an, desbideratzeak txikiak izanik, nahikoa izan da erantzukizunpeko adierazpen batekin (40 erantzukizunpeko adierazpen), eta kasuen % 9an ez da beharrezkoa izan ezer eskatzea (ikus 7. irudia). Ikus daitekeenez, ikuskapenetan, askotan, modu batera edo bestera zuzendu beharreko desbideratzeak hautematen dira. Aipatzekoa da ingurumen-araudia oso zabala dela eta etengabe garatzen ari dela, eta proiektu honen esparruan ikuskatutako instalazioek ez dute, oro har, ingurumenera bideratutako giza baliabiderik izaten.



7. irudia. IPPC EZ diren ikuskapenen ondorengo jarduera



Hondakinak ezabatzeko operadoreetan egindako ikuskapenen ondorioz, 2021ean egindako 18 ikuskapenen ondorioz, ikuskapenen % 6k betetze-maila altua/ertain-altua izan dute, % 44k betetze-maila ertaina eta % 50ek betetze-maila ertaina/txikia..

2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena

Erreferentzia : 2021-03

2.3.1.- Jarduketak

Aurreko urteetako ikuskapenetan, kontrolatu egin genituen EAeko atmosferaren esparruan jarduten duten Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak, eta, aurten, horien ikuskapenak egiten jarraitu dugu. Guztira, bost ikuskapen egin ditugu. Gainera, antzemandako akatsak konpondu dira eta ikuskapenen txostenen eta emaitzen jarraipena egin da.

Era berean, aldaketak erregistratzen jarraitu da, eta alta eman zaie Ingurumena Kontrolatzeko Erakunde berriei. Zehazki, II. mailako hiru Ingurumen Kontrolerako Erakunde berri erregistratu dira.

Azkenik, erakundeek IPPC instalazioetako zarata-kontrolaren eremuan duten egoeraren ebaluazioa eta diagnostikoa egin da, azterketen edukiei eta kontrolen plangintzari dagokienez.

2.3.2.- Ondorioak

2021eko programan ezarritako helburuak eta xedeak osorik bete dira.

Bete egin da bost ikuskapen egitearen helburua. Azpimarratu beharra dago ikuskapenen emaitzak onak izan direla; izan ere, ILEei jakinarazi zaie administrazioak beraien jarduera gainbegiratzen duela, eta egiaztatu da araudia betetzen dela, fokuen neurketari dagokionez.

Gainera, IPPC instalazioetako soinu-inpaktuari buruzko hainbat azterlanen diagnostikoa egin da, ILEek eremu horretan dituzten beharrak ebaluatzeko.



2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna

Erreferentzia: 2021-04

2.4.1.- Jarduketak

2017ko urriaren 30ean, urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuta–.

Aginduan jasotzen den bezala, 1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak aurrera eramane nahi dituzten jarduerari datzekien ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea eduki behar dute, urtebeteko epean APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzen denetik, hots, 2018ko urriaren 31tik. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme hori eduki beharko dute bi urteko epean; hau da, 2019ko urriaren 31rako.

2019ko urriaren 15ean, urriaren 23ko TEK/1023/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehentasun-mailakotzat sailkatuta–.

3. lehentasun-mailako jarduerak finantza-bermea izan behar dute, 2021eko urriaren 16tik aurrera garatzen duten jarduerari edo jarduerari dagokien ingurumen-erantzukizunari aurre egin ahal izateko, etxeko hegaztien edo txerrien hazkuntza intentsiboko jarduerak izan ezik, horiek nahitaezko finantza-bermea izan beharko baitute 2022ko urriaren 16tik aurrera.

2021ko ekitaldian zehar, finantza-bermea jarri behar duten operadorei beharrezko informazioa eta tresnak eman zaizkie, 26/2007 Legetik eratorritako betebeharrak bete ditzaten. Bestalde, 1., 2. eta 3. lehentasun-maila duten operadorei kontrolak egin zaizkie, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legeak ezarritako betebeharrak betetzen diren egiaztatzeko.

2.4.2.- Ondorioak

Esan daiteke 2021erako ezarritako helburuak eta xedeak osorik bete direla. Zehazki, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legean adierazitako nahitaezko finantza-bermearen eraketa jakinaraztera behartuta dauden 295 operadore identifikatu dira, bai eta identifikatutako operadore guztiek Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen 24. artikuluan deskribatutako jakinarazpena aurkeztu dutela egiaztatzen ere.



Ondoren, 6., 7. eta 8. tauletan, operadoreen eta aurkeztutako dokumentazioaren kontrolari buruzko datuak aurkezten dira.

1. lehentasun-mailako instalazioen egoera 2021/12/31n (Derrigortasun-data: 2018/10/31. APM/1040/2017 Agindua)			
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Guztizkoak
IPPC	12	0	12
IPPC eta SEVESO	23	0	23
SEVESO	24	0	24
GUZTIRA	59 (% 100)	0 (% 0)	59

6. taula. 1. lehentasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak.

2. lehentasun-mailako instalazioen egoera 2021/12/31n (Derrigortasun-data: 2019/10/31. APM/1040/2017 Agindua)				
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Galdaeintasuna GF	Guztizkoak
IPPC	73 (% 89,0)	1 (% 1,2)	8 (% 9,8)	82

Oharrak:

- 8 instalaziok bete behar dute Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen zazpigarren xedapen gehigarria, titulartasun publikokoak direlako.
- Enpresa 1, erantzukizunpeko adierazpenik eta ingurumen-arriskuen azterketarik aurkeztu gabe.

7. taula. 2. lehentasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak.



3. lehenetasun-mailako instalazioen egoera 2021/12/31n (021/10/16 ED. Txerrien eta etxeko hegaztien hazkuntza intentsiboko haztegiatarako, 2022/10/16. TEC/1023/2019 Agindua)				
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Galdaezintasuna GF	Guztizkoak
IPPC	126	18	1	145
IPPC Txerri eta hegaztien etxaldeak	0	9	0	9
GUZTIRA	126 (% 81,8)	27 (% 17,5)	1 (0,7%)	154

Oharrak:

- Instalazio bat bete behar dute Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen zazpigarren xedapen gehigarria, titulartasun publikokoak direlako.

8. taula. 3. lehenetasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak

Operadoreek erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkeztu duten dokumentazioari hainbat kontrol egin ondoren, honako jarduketa hauek egin dira:

- 2. lehenetasun-maila duten operadoreen (zabortegeiak) ingurumen-arriskuen analisien 19 berrikuspen, ingurumen-arriskuen analisi horiek erregelamendu bidez ezarritako metodologia bete duten egiaztatzeko.
- 15 errekerimendu zabortegetako operadoreei berrikusitako ingurumen-arriskuen analisisetan aurkitutako desbideratzeak zuzentzeko.
- 3. lehenetasun-mailako operadoreek aurkeztutako 145 dokumentazio-berrikuspen.
- 37 errekerimendu bidali zaizkie 3. lehenetasun-maila duten operadoreei, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko/zabaltzeko edo aurkezteko.

2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa

Erreferentzia: 2021-05

2.5.1.- Jarduketak

2021eko ekitaldian, EAeko operadore zenbaitek egindako hondakin-garraioen 10 ikuskapen espezifiko egin dira, eta ikuskapen bat Bilboko portuan eta 9 ikuskapen errepidetiko hondakin-lekualdaketa. Hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa eguneratzen jarraitu da, eta mugaz gaindiko hondakinen lekualdaketa egiten dituzten operadoreei indarrean dagoen legeriaren ondoriozko betebeharren berri eman zaie.

Horrez gain, eta aurrekoaren osagarri, 17 ikuskapen dokumental egin dira IPPC eta NO IPPC operadoreetan, bakoitzaren proiektuen barruan.



2.5.2.- Ondorioak

Programazioa bete da; izan ere, operadoreei nahiz iragaitzazko hondakinei dagokienez programaturako ikuskapen guztiak egin dira.

2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan

Erreferentzia: 2021-06

2.6.1.- Jarduketak

Proiektuaren harira –proiektuaren helburua da operadoreek eman zaizkien baimenen baldintzak eta IENSEi buruz Ingurumen Sailburuordetzak argitaratutako jarraibide teknikoak zein mailatan betetzen dituzten egiaztatzea–, ezarritako helburuak lortzeko jarraitu beharreko estrategia zehaztea aztertu da. Proiektua bera kudeatzeko administrazio-unitateen artean Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzare barruan sortutako taldearen bidez gauzatu da.

2021ean, lan-taldeak amaitu ditu INSJen konfigurazioa eta funtzionamendua egiaztatzeko lanak kontratatzeko izapideak, eta horiek gauzatzeko beharrezko tresnak prestatu ditu; informazioa bildu du; datu-baseen ereduak sortu ditu; ez-betetze tipok definitu ditu eta berrikuspen-prozedurak landu ditu, besteak beste.

Gainera, 2021eko bigarren seihilekoan, Ikuskapen Zerbitzuak sinatutako kontratuaren esparruan, 14 operadoreen betetze-maila aztertu da, dagozkien baimenen baldintzei dagokienez, bai eta Ingurumen Sailburuordetzak INSJei buruz argitaratutako jarraibide teknikoari dagokienez ere.

Azkenik, adierazi behar da Ingurumen Sailburuordetzako ikuskaritza-teknikariek, programaturako IPPC 2021 ikuskapenen barruan, 19 instalaziotan egiaztatu dituztela INSJekin lotutako alderdiak. Egiaztapen horiek, laguntza teknikoak egin beharreko egiaztapen zehatzak izan ez arren, dagozkien baimenetan eta argitaratutako jarraibide teknikoetan jasotako aldeak betetzen direla ziurtatu dute.

2.6.2.- Ondorioak

Ez da programazioa erabat bete, kontratazio-izapideak amaitzeko eta lanak hasteko aurreikuspena ez duelako bete laguntza teknikoak 2021ean.

Hala ere, aurrez adierazi den bezala, lantaldeak laguntza teknikoak lanak egiteko



beharrezkoak diren tresnak prestatu ditu; 2021eko bigarren seihilekoan hasi dira.

2022. urtean proiektu honekin jarraituko da 2021. urtearen hasieran zehaztutako lanak amaitu arte.

2.7.- Proiektua: EAEko nikel-mailak kontrolatzea (INOX).

Erreferentzia: 2021-07

2.7.1.- Jarduketak

2021ean, aztergai diren instalazioak erregularizatu behar izan dira, baita metal-emisore potentzialak ere, nikela barne. Atmosferara isurtzen duten fokuen emisioen kontrolean zenbait parametro metaliko sartzea aztertu eta inplementatu da.

Gainera, aztertu beharreko instalazio bat ikuskatu da, material partikulatu metalikoa igorri dezakeena. Bestalde, eduki metalikoari buruzko informazio osagarria eskatu zaie identifikatutako operadoreei, eta ondoren aztertu egin da.

Identifikatutako jardueren isurketek 102/2011 Errege Dekretuan jasotako kalitate kutsagarriko helburuak betetzen laguntzen ez dutela bermatzeko, airearen kalitateari buruzko lehen kanpaina bat egin da identifikatutako eremu geografikoetako batean.

2.7.2.- Ondorioak

Programazioaren ehuneko handi bat bete da. 2021ean, isuri metalikoak izan ditzaketen EAEko instalazioak erregularizatu dira. Identifikatutako instalazioak bi ingurune geografikotan daude, eta horietako batean airearen kalitateari buruzko kanpaina bat egin da.

2022an ere proiektuarekin jarraituko da, beste ingurune batean airearen kalitateari buruzko bigarren kanpaina bat egiteko eta bi instalaziotan neurri zuzentzaileak instalatzea eskatzeko.

2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa

Erreferentzia: 2021-08

2.8.1.- Jarduketak

Ingurumen-arriskua duten bertan behera utzitako jardueri dagokienez, sei ikuskapen egin dira 2021ean.



2.8.2.- Ondorioak

2017-2019 aldian, proiektuan sartzen ziren kargu-uzteen espediente berrien kopuruak behera egin zuela ikusi zen. 2021ean ikusi da kargugabetutako instalazioen kopuruak bere horretan jarraitzen duela, baina ikusten da instalazio horien gaineko jarduketak denboran zehar mantentzen direla, kudeaketak hainbat urtez luzatzen direla, eta, beraz, 2022an lanean jarraituko da urte horretan amaitutako jardueren hondakin arriskutsuen eta gaien kudeaketan, aurreko urteetan amaitu diren jardueren kudeaketan bezala.

2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa

Erreferentzia: 2021-09

2.9.1.- Jarduketak


EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuna eman zaio urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra 511 abisu kudeatu dira eta horietatik eratorritako 83 landa-jarduera egin dira.

Honela banatzen dira abisuak, lurralde historikoaren arabera:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
OHARTARAZPEN KOP.	115	310	86

9. taula. Abisu kopurua, lurraldearen arabera.




7. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen arabera.



Eragindako ingurunearen araberako banaketa 10. taulan eta 8. irudian adierazten da.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
AIREA	53	192	36
NATURA-INGURUNEA	25	54	26
LURZORUA	28	28	11
URA	9	35	13

10. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera




8. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera

Ingurumen-efektuaren araberako banaketa 11. taulan eta 9. irudian adierazten da.

	Errepideko istripua	Airera eginiko igorpenak	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste batzuk
ARABA	3	27	4	19	18	5	19	7	13
BIZKAIA	4	55	6	115	17	13	28	37	35
GIPUZKOA	0	21	7	9	7	9	10	13	10

11. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera



9. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera

2.9.2.- Ondorioak

EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuteko helburua bete da, 24 orduz.

Ohizkotzat jotzen dira abisuen kopurua eta ezaugarriak. Hona hemen azken urteetan jasotako abisuak:

2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
522	553	551	490	602	470	511

12. Taula. Abisu kopurua urteetan zehar.

Nabarmendu behar da usainen ondoriozko kexa kopuru handia dagoela Bizkaian, eta proportzioan askoz handiagoa dela usainen ondoriozko kexen kopurua Araban eta Gipuzkoan baino. Bizkaiko usainen kexak Muskiz, Erandio eta Gueñesen ingurukoak dira batez ere.



2.10.- Proiektua: Zabortegietako hondakinen mugen kontrola

Erreferentzia : 2021-10

2.10.1.- Jarduketak

Iragan 2020ko otsailaren 6an, VERTER RECYCLING 2002, S.L. enpresak ustiatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortegian irristatze larria gertatu zen.

Bestalde, 2020ko otsailaren 29an, CESPACONTEN, S.A. enpresak Mutiloako udal-mugartean (Gipuzkoa) duen zabortegia itxi zen, hondakinak onartzeko. Beraz, VERTER RECYCLING 2002, S.L. enpresako hondakindegira urtean 500.000 tona hondakin igortzen ziren, eta, horrez gain, urtean beste 350.000 tona eraman behar ziren; lehen tona horiek ezabatu egiten ziren aipatutako Mutiloako zabortegian biltegituta.

Hori dela eta, martxoaren 13an argitaratu zen EHAAn 2020ko martxoaren 4ko Agindua, zeinaren bidez aldi baterako premiazko neurriak ezartzen baitzaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile eta ekoizle jakin batzuei; bertan, EAEko zabortegi baimenduen titularrei eta ekoizleei zenbait hondakin isurtzea mugatzeko neurriak ezartzen zaizkie. Agindu hori urtebetez luzatu zen.

Proiektuak, hondakinak ezabatzeko jarduera martxoaren 4ko Agindua betez egiten dela bermatuko duten beharrezko kontrolak egiteko helburuarekin sortu zena, gaur egun aktibo dauden edo itxita dauden hondakinak ezabatzeko 9 IPPC instalazioetatik 7tan ikuskapenak egitea ekarri du, baldin eta isurtzeko soberakin-bolumena badute. Zehazki, ikuskatutako instalazio horietan isuri ziren EAEn 2021ean ezabatutako hondakinen % 99. Bestalde, IPPC jarduerari egindako jarraipen-ikuskapenak baliatu dira gai horretan eragiteko.

In situ egindako ikuskapenez gain, hiru hilean behin, ekoizleen eta hondakinen kudeatzaileen artxibo kronologikoen bidalketaren ikuskapen dokumentalak egin dira, bai eta agindua bete ez dutelakoan instalazioetara 2 errekerimendu bidali ere.

Azpimarratu behar da baimena ematen duen taldearekin lankidetzan aritu dela EAEn isurketak baimentzeko edo EAetik kanpoko hondakinak kudeatzeko eskaeretan..

2.10.2.- Ondorioak

Balorizazio-proiektuak sustatzen jarraituko da. Une honetan, paper-lohiak eta galdaketako hareak balorizatzeko instalazioak ezartzen ari dira, eta altzairu herdoilgaitzeko zepak balorizatzeko eta hondakin-kudeatzaileen plastikoak baztertze bide posibleak bilatzen..



3. Emaitzak

Proiektuak

Proiektuaren erref.	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2021-01	135	% 100
2021-02	200	% 100
2021-03	5	% 100
2021-04	18	% 100
2021-05	9	% 100
2021-06	Kualitatiboak	% 100
2021-07	Kualitatiboak	% 100
2021-08	Kualitatiboak	% 100
2021-09	Ez dagokio	Kualitatiboak
2021-10	Kualitatiboak	% 95

13. taula. 2019an gauzatutako ikuskapen-proiektuen betetze-mailaren laburpena

Proiektu eta ikuskapen guztiak

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.
2021-01	156	473
2021-02	281	281
2021-03	5	5
2021-04	19	19
2021-05	20	37
2021-06	33	33
2021-07	1	1
2021-08	6	6
2021-09	0	83
2021-10	15	13
Guztira	536	951

14. taula. Ikuskatutako jardueren eta egindako ikuskapenen laburpena



4. Ondorioak

2021eko Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programan ezartzen zen bezala, Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzaileak dira programa erabat garatzeko. Horregatik, erabilgarri zeuden baliabideak kontuan hartuta diseinatu zen programa lehentasun handieneko proiektuak abiaraziz gauzatu da, eta gainerakoak baliabideen erabilgarritasunaren arabera hedatuz..

Bestalde, Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako 2019 - 2026 Planak 5. atalean, Jardueren Lehentasuna atalean, ezartzen duen bezala, ingurumenean eragina duten gorabehera eta istripuen abisuen, kexen eta salaketen kudeaketa lehentasunezkoztat jotzen da gainerakoen aldean, eta, beraz, 2020ko otsailaren 6an Zaldibarren gertatutako Verter Recycling zabortegiaren lerratzeak baliabide kopuru handi bat ikuskatzea ekarri du 2021eko ekitaldian.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Ikuskapen Zerbitzua osatzen duten 8 ikuskatzaileek 2021eko Programan definitutako proiektuak gauzatzean lortutako betetze-maila optimotzat jotzen da, eta proposatutako helburuekin osatu da.